

AURKIBIDEA

LABURPENA.....	4
RESUMEN.....	4
1. SARRERA	5
2. MARKO TEORIKOA	5
2.1. Sexu- genero sistema.....	6
2.2. Genero rolak eta estereotipoak.....	7
2.3. Sozializatorako genero eragileak	9
2.3.1. Familia	9
2.3.2. Komunikabideak	10
2.3.3. Eskola.....	10
2.4. Zer da sexismoa?	11
2.4.1. Sexismoa eskolan.....	12
2.5. Jolas eta jostailu ez-sexisten garrantzia	13
2.5.1. Jolas eta jostailu ez-sexistak aukeratzeko gomendioak	14
3. HELBURUAK.....	15
4. METODOA.....	15
4.1. Landa lana	15
4.1.1. Testuingurua.....	15
4.1.2. Diseinua.....	15
4.1.3. Partaideak.....	16
4.1.4. Informazioa jasotzeko erabilitako tresna	16
4.1.5. Jasotako informazioa tratatzeko prozesua	16
5. EMAITZAK.....	18
5.1. Jolas eta jostailu sexuatuak daude?	18
5.2. Jolas gustukoak.....	20
5.3. Familiak oparitutakoak.....	21
5.4. Lagunekin jolastutakoak	22

5.5. Lagunekin jolasteko jostailuak	23
6. ONDORIOAK.....	24
7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK.....	25
8. ERREFERENTZIAK.....	27
9. ERANSKINAK.....	30
1. Eranskina: partaideak.....	30
2. Eranskina: galdetegia.....	31

LABURPENA

Lan honetan bizi garen gizarte androzentrikoan dauden genero rol eta estereotipoen inguruan hitz egiten da. Androzentrismoak, beste hainbat eragileen ondorioz, emakumea gizonetzkoarekin alderatuta mendeetan zehar desabantailan egotea ekarri du. Rol eta estereotipo hauek txikitatik ikasten ditugu inguruan ditugun hainbat eragileen eragitearen ondorioz, hala nola, eskola, familia eta komunikabideak. Estereotipo horien adierazle argiak ditugu gaur egungo jolas eta jostailuetan. Lan honen bitartez jolas eta jostailuekin erreproduzitzen diren estereotipoen inguruko hausnarketa bilatu nahi da.

Gauzak horrela, Gasteizko Luis Dorao ikastetxean 6. mailako ikasleei galdetegi bat pasa zaie haurrak erabiltzen dituzten jolas eta jostailuak gizartean daude genero estereotipoak erreproduzitzen dituzten ala ez jakiteko.

Lan honetan ikusi da, neskak eta mutilezkoak jolas eta jostailu ezberdinak gustuko dituztela. Beraz, ondorioztatu dezaket, orokorrean haurren jolas eta jostailuak sexuatuak daudela.

Hitz- gakoak: generoa, gizartea, estereotipoak, rolak, hezkidetzaz, sexismoa, jolas eta jostailuak.

RESUMEN

En este trabajo se habla de los roles y estereotipos de genero que hay en la sociedad androcentrica en la que vivimos. El androcentrismo, junto a otros agentes, ha hecho que las mujeres a lo largo de los siglos hayan estado en desventaja en comparación con los hombres. Estos roles y estereotipos son aprendidos desde la niñez gracias a la influencia de varios agentes, como la escuela, la familia y los medios de comunicación. Los juegos y los juguetes son un reflejo claro de estos estereotipos. En este trabajo se busca reflexionar sobre los estereotipos reproducidos a través de juegos y juguetes.

De esta manera, se les pasó un cuestionario al alumnado de sexto de primaria de la escuela Luis Dorao de Vitoria, para averiguar si los juegos y los juguetes transmiten los estereotipos de género de la sociedad.

En este trabajo se ha visto que a los niños y a las niñas les gustan juegos y juguetes diferentes. Por lo tanto, puedo concluir que en general los juegos y los juguetes infantiles están sexuados.

Palabras clave: genero, sociedad, estereotipos, roles, coeducación, sexismo, juegos y juguetes.

1. SARRERA

Mendeetan zehar, emakumeak estereotipo kopuru eta praktika sexista anitzen eraginaren azpian egon dira. Eta horiek gaur egungo gizartean hainbat arlotan (arloan sozialean, ekonomikoan, politikoan eta hezkuntzan) genero desberdintasuna sortu dute. Ondorioz, emakumea gizonezkoekin konparatuta desabantailan egon da beti. Izan ere, emakumeei gizonezkoen onartzen zaizkion hainbat eskubide ukatu zaizkie.

Txikitatik hainbat rol ikasten dira, nolakoak izan behar garen zehazten dutenak. Rol hauek familiek, komunikabideek, eta eskolek erakusten dizkigute. Azken horrek, eskolak eragin handia izan dezake genero-estereotipoak apurtzen laguntzeko eta haurrak berdintasunean hezteko. Gaur egun, gizonezko eta emakumezkoen berdintasunaren alde aurrerapauso handia egin den arren, oraindik erronka handia dago aurretik.

Lan honen bitartez, gaur egun jolas eta jostailuak genero estereotipoak sustatzen dituzten eta Lehen Hezkuntzako haurrek eraikuntza estereotipatuak barneratuta dituzten aztertzea da helburu. Horretarako, Gasteizko Luis Dorao eskola publikoan seigarren mailako ikasleei galdetegi bat pasatu nien.

Hori dela eta, nire lanak honako egitura hau izango du: lehenengo atalean, marko teorikoa agertuko da bertan sexu-genero sistema, genero rola eta estereotipoak, generoan sozializatzeko eragileak (familia, eskola eta komunikabideak), sexismoa eta jolas eta jostailu ez sexistak garrantzia garatuko dira. Hirugarren atalean, metodoa egongo da, bertan, helburuak, lanaren antolaketa eta landa lana nola egin den azalduko da. Laugarren atalean, lanaren emaitzak azalduko dira. Bostgarren atalean, ondorioak egongo dira, marko teorikoaren ideiekin lotura egin ahal izateko. Azkenik, seigarren atalean lana hobetzeko aspektuak azalduko dira.

2. MARKO TEORIKOA

Atal honetan lehenik eta behin sexu eta genero kontzeptuak argituko dira, ondoren, gizartean dauden genero rola eta estereotipoak azaltzeko, eta , genero eragileak zeintzuk diren eta hauen eragina zein den aztertuko da. Bestalde, zer den sexismoa eta eskolan zer nolako sexismoa ematen den azalduko da, baita sexismoa ekiditeko bidea ere. Azkenik, jolas eta jostailu ez sexistak zeintzuk diren, eta hauek aukeratzeko zenbait gomendio emango dira.

2.1. Sexu- genero sistema

Lan honen oinarria genero eraikuntza izanik, ezinbestekoa da genero zer den azaltzea. Baina, generoarekiko hurbilpen honekin batera nahitaez generoarekin lotura zuzena duen beste kontzeptu bati erreferentzia egitea ezinbestekoa izango da. Kontzeptu hau ondorengoa da: sexua.

Jakina denez, biologikoki emakumeak eta gizonezkoak hainbat desberdintasun eta antzekotasunak (zentzumenak, nerbio-sistema, zirkulazio-sistema) dituzte. Emakumeen eta gizonezkoen desberdintasun handiena biologian dago eta ezberdintasun horri sexua deitzen diogu, hala horren arabera bi sexu daudela esan daiteke: ar eta eme. Sexuari dagokionez ezberdintasun esanguratsuenak honako hauek dira (Mejia, 2015, 236 orr) :

- Lehenengo ezberdintasuna konfigurazioa kromosomikoa: Pertsonok informazio genetikoa 46 kromosometan dugu, horietako bat kromosoma sexuala da: "X" edo "Y" izan daitekeena. 46. Kromosoma pareta XY bada gizonezkoa izango da pertsona eta XX bada, berriz, emakumezkoa.
- Bestetik, bigarren ezaugarri bereizgarriena kanpoko genitalen anatomia da.
- Hirugarren berezitasuna hormonak dira, gizonezkoek testosterona eta androgeno gehiago jariatzen dituzte, eta emakumeak, ordea, estrogeno eta progesterona gehiago (Mejia, 2015). Azpimarratzekoa da, kromosoma horiek gorputzak sortzen dituen hormonetan eragina dutela, hormonak izango baitira pertsonen ezaugarri sexualak eta garapen fisikoa determinatzen dutenak (Arenas, 2006).

Aipatzekoa da, desberdintasun hauei erreferentzia egiteko "sexua" erabiltzen dela. Baina zer da sexua? sexua jaiotzen garen ezaugarri anatomikoei eta fisiologikoei egiten die erreferentzia (Arenas, 2006). Horrek ez du esan nahi sexu batekoa izateagatik jarrera, trebetasun edo ahalmen batzuk ditugunik, hauen eragilea generoa da. Izan ere, generoa sexuaren gainean sortutako eraikuntza kulturala da, emakumeei eta gizonezkoiei esleitzen zaizkion ezaugarri ez biologikoak, hain zuzen, balio kulturalak edo sozialak (Mejia, 2015). Beste era batera esanda, sexu bakoitzarentzat gizarteak sortzen eta barneratzen dituen balioen, estereotipoen edota rolen multzoa da generoa. Beraz, gizarteak generoa feminitatea zein maskulinitatea prozesu sozial, kultural eta psikologikoen bidez egituratu eta erreproduzitzen du (Scraton, 1995).

Genero ezberdintasunak ez dira soilik biologikoki zehaztuak, eta umea jaiotzen denetik edo jaio baino lehen somatzen hasten dira (Browne eta France, 1988). Pertsona baten sexua dakigunean sexuan oinarritutako genero kategorizazioa egiten da. Izan ere, gizarteak pertsona bakoitzarentzako sexuan oinarritutako zenbait irizpide sortzen ditu.

Esaterako, badirudi jaiotzerakoan neskak arrosaz jantzi behar direla eta mutilak, berriz, urdinez. Sexu bakoitza gizarteak markatutako irizpide hauen arabera jokatu behar duela ematen du, horiek sexu bakoitzaren izaera zehazten baitute (Bilgune Femenista, 2011).

Gizarte bakoitzak bere ereduarekin eta ideologiarekin bat datozen irizpideak sortu eta historian zehar transmititzen ditu. Irizpide horiek pertsonak sailkatzeko erabiltzen dira, sexuen artean benetako diferentzia eta botere harremana sortuz. Gauzak horrela, geure buruaren irudia gizarteak sortzen dituen ereduaren arabera eraikitzen da (Moreno, 1993).

Era berean, jaiotzen garen momentutik konturatu gabe jasotzen dugun eragin sozialaren ondorioz, norberak bere munduaren ikuspegia sortzen du. Izan ere, munduaren ikuspegia bizi garen gizartearen arabera garatzen da. Beraz, biologiak eta geneek ez dute zehaztuko pertsona baten jarduteko era, baizik eta bizi den jendarteak (Browne eta France, 1988).

2.2. Genero rola eta estereotipoak

Sexu-genero sistemaren inguruan hitz egin ondoren, genero rola eta estereotipoak zer diren azalduko da; baita emakume, zein gizon izatearekin zerikusia duten rola eta estereotipoak ere.

Estereotipoak pertsona talde bati esleitzen zaizkion sinesmen positiboak edo negatiboak dira, horietan oinarrituta pertsonak talde sozialetan banatzen dira. Gainera, talde osoari aplikatzen zaizkion arauak dira, beraien artean ezberdintasunik ez baleude bezala. Negatiboak direnean estereotipoak aurreiritziak islatzen dituzte, eta horien ondorioz, diskriminazioa eman daiteke (Karina del Carmen et al, 2017).

Era berean, estereotipoak ezaugarri sexuarekin lotzen direnean genero estereotipoak direla esaten da (Velandia eta Rincón, 2013). Beraz, genero estereotipoak sozializazio prozesuaren bitartez sexu bakoitzari esleitzen zaizkion sinesmenak dira eta horiek azalpen biologikoak kontuan hartu gabe emakumeak eta gizonezkoak nolakoan izan behar diren zehazten dute (Granada et al., 2018). Era horretan, Salasek (1997: 34) adierazten du (taula 1) sistema patriarkalak sustatzen dituen bi genero- estereotipoak (maskulinoa eta femeninoa) :

1.taula. Estereotipo maskulino eta femeninoen ezaugarriak .(Salas, 1997: 34)

ESTEREOTIPOA	MASKULINOA	FEMENINOA
Gaitasunak:	Inteligentzia, Indarra, Independentzia...	Afektibitatea, Sentiberatasuna Erantzukizuna...

Baloreak:	Agresibitatea, Anbizioa, Jauzkortasuna, Boterea...	Otzantasuna, Ulerkortasuna, Ahultasuna, Samurtasuna...
Portaera- ereduak:	Estandar maskulinoa, estereotipoa indartzeko (mutikoez ez dute negarrik egin behar, gizonezkoek ez baitute halakorik egiten...).	Estandar femeninoa, estereotipoa indartzeko (neskatoak ez dira zikindu behar, ez zaitez mari-mutila izan...).
Kolore bat:	Urdina	Arrosa
Espazio bat munduan:	Esparru publikoa	Esparru pribatua
Sexu bat	Gizonezkoa	Emakumezkoa
Biologia funtzio bat		Amatasuna

Txikiak garenetik testuinguru soziokultural baten barruan genero rol eta estereotipoak barneratu egiten dira. Eraikuntza sozialak izanda iraunkorrak eta egiazkoak direla pentsatzen da. Modu honetan, oso pertsona gutxi horiei aurre egiteko gai dira. (Granada et al, 2018).

Esan bezala, estereotipoek emakumeentzat zein gizonezkoentzat berezko ezaugarriak markatzen dituzte, eta modu horretan, generoa kulturen txertatzen da eta giza-komunitateak partekatzen dituen esanahiak izango dira. Gizarteak estereotipoak transmititzen dituzenez, barneratzen ditugu eta horien arabera jokatzeko joera dugu (Karina del Carmen Moreno Diaz et al, 2017). Alde batetik, emakumezkoena amatasuna, adierazpen emozionala, zaintza eta sumisio ezaugarriekin lotzen da, eta bestetik, gizonezkoena erabakiak hartzeko gaitasuna, menderakuntza eta kontrola (Browne eta France, 1988).

Salas-en (1997) esanetan, historian zehar bi rol antzeman dira gure gizartean: ugalketa rola eta ekoizpen rola. Lehenengoa, emakumearena da eta zaintza eta amatasun jarduerekin lotzen da, hau da, ohikoa da gaur egun emakumeak ume, agure eta gaixoen zaintzan aritzea eta hainbat lanbidetan emakumeak egotea (irakasle, erizain, haur zaintzaile...)(Arenas, 2016). Bigarrena, berriz, ekoizpen arloarekin loturiko eginkizunei egiten dio erreferentzia, aspaldian eta gaur egun ere gizonezkoari esleitu zaio, gizonezkoa baita familia zaindu eta dirua etxera eramane duena (Salas, 1997).

Aurrekoaren harira, rol hauek gizonezkoek zein emakumezkoek gizartean izan duten espazioa zehaztu dute. Ekoizpen rola espazio publikoarekin erlazionatu egin da eta ugalketa rola, aldiz, espazio pribatuarekin. Banaketa honen ondorioz, bi sexuak ez dituzte aukera berdinak izan bizitzan. Adibidez, gizonezkoek kargu altuetan egoteko aukera gehiago izan dituzte emakumeek baino, nolabait hobeto ikusita zegoen horela

gertatzea (Moreno, 1993). Rol hauek botere-harremana sortu dute, hori da, gizonezkoa menderatzailea eta emakumea menderatua izatea (Scraton, 1995).

Hori gutxi balitz, genero rol eta estereotipoek nola izan behar garen inposatzen digute, aukeratzeko askatasuna zapuztuz. Azken finean, emakumeak edo gizonezkoak izateagatik, paper bat irudikatzen zaie baina ez berez paper horrekin bat datozelako (Moreno, 1993). Horregatik, beharrezkoa da estereotipoak bertan bera uztea eta pertsonaren nortasuna berreskuratzea (Salas, 1997).

Azkenik, hainbat ikerketek frogatu duten bezala estereotipoak Lehen Hezkuntzan eta geletan ere oso presente daude, bereziki Gorputz- Hezkuntzako klaseetan. Horregatik, ukaezina da gaur egun hezkuntza sistemak duen garrantzia ezberdintasunik gabeko gizarte bat eraikitzeke (Granada et. al, 2018).

2.3. Sozializatorako genero eragileak

Idea estereotipatuak sozializazioaren bitartez barneratzen ditugu, izan ere, gizonezkoa eta emakumezkoa izaten ikasten da (Rodriguez, 2007). Sozializazio prozesu honetan eragina duten hiru eragile daude, zehazki, familia, eskola eta komunikabideak (Alvariñas eta Pazos, 2018). Sozializazio eragileak genero estereotipoak inplikatzeko dituzten desberdintasunak mantendu eta erreproduzitzen dituzte eta genero bereizketa eta bazterkeriarekin amaitzeko eragile aproposenak izan ohi dira (Karina del Carmen Moreno Diaz et al, 2017).

2.3.1. Familia

Familia sozializazio agente garrantzitsuenetakoa da bi arrazoiengatik: alde batetik, pertsonarengana lehenengoa ailegatzen den agente delako eta bestetik, gizartearen eta gizabanakoaren arteko lokarria bihurtzen delako (Rodriguez, 2007). Gurasoak haurren sozializazio prozesuaren kudeatzaileak dira, bereziki bizitzaren lehenengo urteetan. Haurrek txikiak direnean inguruan ikusten duten guztia kopiatzen dute, beraz familiaren eredu oso garrantzitsua da, izan ere, familiarik kopiatuko dituzte ohitura eta jarrera nagusienak. Beraz, familiaren inguruan ikasten dituzte generoarekin erlazioetatutako jokaera eta jarrerak (Santos, 2000).

Haurrek imitazioz ikasten dute eta berehala barneratzen dute ikusten duten guztia, adibidez, etxeko betebeharrak, erabakiak hartzeko moduak, jolasak, koloreak etab. Horregatik, oso garrantzitsua izango da gurasoen harremanetan berdintasuna egotea eta etxetik genero estereotipoekin zein rolekin amaitzea (Espinar, 2009).

Cevotarev-en (2003) aburuz, familia ereduak aldatuz joan dira gizartearen aldaketa historikoei erantzuna emateko. Gaur egun, emakumeak espazio pribatutik

(etxetik) atera eta espazio publikoan (lan munduan) sartu dira, hori da, etxeko betebeharrak egiteari utzi eta gizonezkoak bezala lan munduan murgildu dira. Rol femeninoa, ez ezik, rol maskulinoa ere aldatu egin da, modu horretan, gizonezkoek zainketa eta etxeko lanen ardura hartzen ari dira.

Aipatzekoa da ere, familiek haurraren sexua jakiten dutenetik sexuaren arabera haurra modu ezberdinean hezi egiten dutela. Hots, neska bada eta panpin edo sukaldez inguratuta hazten da, hau dela eta, teoria inplizituak suposatzen du etorkizunean nahiago izango duela horrelako inguruan egotea. Gainera, familiak sexuaren arabera dituzten itxaropenak oso garrantzitsuak izango dira haurraren nortasunean eta izaeran (Santos, 2000).

2.3.2. Komunikabideak

Torneroren ustez (2008) gaur egun, gure gizartean teknologiek duten eragina, geroz eta handiagoa da, komunikabideen eragina ukazina da. Garapen handi hori dela eta, gizartea pantailaz bete egin da. Telebistako pantailaz gain, mugikorra, ordenagailua, tableta etab. gehitu zaizkiolako.

Ildo beretik, komunikabideek gizartearen eta sistemaren estereotipoak erreproduzitzen dituzte. Komunikabidetan agertzen den publizitatean emakumea objektu bat bezala ikusten da. Modu horretan, emakumearen gorputza erabiltzen da gizonezkoa erakartzeko eta era horretan, gizonezkoaren mendekotasuna eta emakumearen sumisioa sustatzen dute (Emakunde, 2004).

Era berean, komunikabideek genero idealak erreproduzitzen dituzte eta idealak ez datoz guztiz bat errealitatearekin, esate baterako, irudi estereotipatua eta edertasun modeloak (Velandia eta Rincón, 2013). Horretaz aparte, emakumea etxeko produktuetako eta ugalketa jardueretako publizitatean agertu ohi da, berriz ere emakumea eremu pribatura murgilduz eta gizonezkoa, aldiz, publikora (Browne eta France, 1988).

Esan bezala, haurrek komunikabidetik informazio ugari ikasten dute, horregatik komenigarria izango litzateke genero estereotipoak ez erreproduzitzea (Torner, 2008). Beraz, komunikabideetan aldaketa sakon bat egin behar da, adibidez, iritzia sortzen duten programetan emakumearen presentzia eta parte hartzea handituz (Velandia eta Rincon, 2013).

2.3.3. Eskola

Eskolako hezkuntza eredua sistema patriarkalaren arabera antolatu egin da, izan ere, eskola ez da neutroa gizartearen eredua hegemoniko maskulinoa transmititzen baitu

(Salas, 1997). Gainera, eskolak instituzio sozial eta hezigarri moduan paper garrantzitsua dauka haurren portaera eta nortasuna eraikitzeko, baita identitate sexuala aukeratzeko ere (Santos, 2000).

Azpimarratzekoa da, eskolak genero balioak transmititzen dituela curriculum ezkutuaren bitartez. Balio hauek ikasi egiten dira irakasleak zein ikasleak hauen transmisioaz konturatu gabe. Horietako batzuk dira adibidez, ikasleekin komunikatzeko modua eta taldekatzea (Tinning, 1992).

Eskolara joan aurretik dagoeneko umeak desberdintasun hauetan hezita daude, baina eskolara sartzerakoan hauek erreproduzitu eta indartzen dira. Neskak eskolan desabantaila sozialak onartzen eta galtzen ikasten dute (Arenas, 2016). Gainera, neskak eta mutilak modu ezberdinean hezi egiten dira, hain zuzen ere: neskei arlo emozionalean ahulagoak direla irakasten zaie. Mutilari, ordea, emozionalki indartsuagoak izan behar direla eta haien sentimenduak ezkututzen erakusten zaie (Gallego, 2012).

Eskola gizartearen aldaketarako giltza indartsua izan daiteke. Honetan, irakaslearen papera ezinbestekoa izango da eskolan gertatzen diren gertaera sexistak aztertzeko eta hauei aurre egiteko. Horretarako, irakasleen etengabeko formakuntza beharrezkoa izango da (Arenas, 2016).

2.4. Zer da sexismoa?

Sau-k dion bezala (2000, 277 orr) sexismoa honetan dantza: “conjunto de todos y cada uno de los métodos empleados en el seno del patriarcado para mantener en situación de inferioridad, subordinación y explotación al sexo dominado: femenino.”

Sexismoa edo genero diskriminazioa sexu bakoitzari balore, eta rol ezberdinak ematea da. Desberdintasun horiek gehienetan biologian oinarritzen dira. Jarrera hau ideologia, aurreiritzi eta estereotipoetan oinarrituta sexu bakoitza modu bereizian tratatzen du. Esan beharra dago ere, pertsona bat bere sexua dela eta, baztertuta sentitzen denean gertatzen dela (Parra, 2009).

Gainera, sexismoak gizonezkoena den guztia aintzat hartu eta garrantzia ematen dio, eta emakumerena, berriz, gutxien du, hori da, gizonezkoena den guztia goraiatu eta aitortzen du edozerren gainetik. Gizonezkoa unibertsoaren erdigunea hartzen duen kontzeptu honi andonzentrismoa deitzen zaio (Moreno, 1993). Sexismoan gertatzen diren praktika gehienak emakumeari eragiten diote, horregatik, emakumeak errealitatean maila baxuago batean egotea ekarri du (Parra, 2009).

2.4.1. Sexismoa eskolan

Historian zehar, emakumeek hezkuntzan sartzeko zailtasunak izan ditu, eta horren ondorioz, hezkuntzatik baztertuta egon da. Gainera, gizonezkoak baino hezkuntza aukera gutxiago izan dituzte. Hezkuntza sisteman sartzen hasi zen bere partizipazioa gizonezkoaren antzekoa izan arte. Hala ere, XIX.mendean emakumearen eskolarizazioa ez zuen benetako berdintasuna ekarri, ezta sexismoa ezabatu (Bilgune Feminista, 2011). Izan ere, emakumearen hezkuntza sozialki ezarritako ereduetan oinarrituta egon da (Parra, 2009).

Era berean, hezkuntzak gizartetik kopiatutako eredia gizonezkoa erdigunean jartzen du, gizonezkoa gizarterako baliozkoa eta unibertsala aurkeztuz. Horren ondorioz, emakumezkoak jaso duten ikaskuntza balioz eta pautak androzentrikoz beteta egon da (Arenas, 2016).

Arenasen (2016) esaten, eskolako eguneroko praktiken bitartez kultura bateko estereotipoak ikasten eta transmititzen dira. Praktika horietan emakumea galtzailea gisa agertzen da, esate baterako, ipuinetan, jolasetan, komunikazio arauetan etab., gainera, eskolan eskaintzen dituen aukeren ondorioz, mutilek eskolan arrakasta handiagoa izateko aukera dute. Era berean, neskak mutilekin konparatuz autoestimu baxuarekin, porrotarako joerarekin eta galtzeko ideologiarekin hezkuntza sistema uzten dute.

Eskolan ematen den sexismoa curriculumean agertzen diren edukietan argi eta garbi behatu daitezke. Izan ere, curriculumak gizartea bezala guztiz androzentrikoa da. Gauzak horrela, curriculumaren bitartez bakarrik gizonezkoek egindako lorpenak irakasten dira. Esaterako, Lehen Hezkuntzan irakasten den historia emakumerik gabeko historia da (Moreno, 1993).

Azpimarratzekoa da, gaurkotasunean aurreratze sozialak eta emakumearen diskriminazioaz kontzientziatzearekin batera instituzioek neurriak hartu dituztela sexismoa ezabatzeko praktika sozial eta hezigarri moduan (Browne eta France, 1988). Edonola ere gaur egun eragin sexistak ez da modu zuzen eta esplizitu batean ematen, baizik eta modu inplizitu eta zehar batean curriculum ezkutuaren bitartez. Honek curriculum ofizialaren kontrako ondorioak ekarri ditzake (Parra, 2009).

2.4.1.1. Curriculum ezkutua

Gaur egun diskriminazio sexistaren inguruko sentsibilizazioa eta ardura handiagoa da, bereziki herrialde garatuetan. Horretaz aparte, curriculum ofizialean diskriminazio sexistak transmititzeko mekanismoak gutxitu dira. Momentu honetan hauek curriculum ezkutuaren bitartez transmititzen dira (Carrillo, 2009). Curriculum ezkutua irakasle-ikasleen erlazioaren bitartez transmititzen diren jarreraren, arauen eta balioen multzoari

deitzen zaio, irakaslea zein ikaslea hauen transmisioaz eta garrantziaz konturatu gabe (Tinning, 1992).

Gloria Arenasek dion moduan, ikasleek nahitaezkoak ez diren zenbait ezagutzak ikasten dituzte materia akademikoak lantzen dituzten bitartean. Ezagutza hauei erreferentzia egiteko “curriculum ezkutu” terminoa erabiltzen da.

Juan Parraren (2009) ustez honako hauek dira genero perspektiban curriculum ezkutuan eragina duten alderdiak: hizkuntza, testu liburuak, irakasleen papera, ikasleen interakzioa, espazioaren eta materialaren banaketa, klaseko arduraren banaketa eta azkenik, ikasketen orientazioa.

2.4.1.2. Hezkidetzaz gizartea aldatzeko giltza

Hezkidetzaz hezkuntza mistoa baino askoz gehiago da. Benetako berdintasuna bermatu nahi du, bi sexuentzako berdintasun akademikoa, profesionala eta orokorra bilatuz, bere helburu nagusia mekanismo baztertzailak ezabatzea izanik. Beraz, bi sexuak modu berdinean hezitzen direnean hezkidetzaz hitz egiten da. Horretarako, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak erabiltzen diren elementuen birplanteamendua eskatzen du (Browne eta France, 1988).

Aurrekoaren harira, heziketa fisikoko arloa hezkidetzaz lantzeko oso aproposa izan daiteke. Ikasgai honen bitartez genero ikuspegiari mesede egingo dioten balio anitz erakutsi eta garatuko direlako. Gorputz- Hezkuntzak modu ludikoan landuz hezkidetzak sustatu nahi dituen balio anitz errazago barneratuko dira (Gutierrez, 1998).

Horretaz gain, Gorputz Hezkuntza beste ikasgaietatik bereizi egiten da bere ezaugarri bereziak direla eta, hala nola, mugimendua eta gorputza, jolasak eta estrategia desberdinak erabiltzeagatik. Aipatzekoa da ere, balioak beste pertsona batzuekin komunikatuz eta harremanetan jarriz eskuratzen ditugu, hau da, sozializazio prozesuaren bitartez. Heziketa fisikoan konturatu gabe besteekin etengabe komunikatzen ari gara (Alonso, 2007).

2.5. Jolas eta jostailu ez-sexisten garrantzia

Jolasa ikasteko egoera naturala da, ezagutzarako, ikasketarako eta adierazpenerako bide nagusia da. Jolasaren bidez portaera, araua eta gaitasun anitz barneratzen dituzte haurren nortasuna eraikitzeko (Mugartegi, 2016).

Jostailuek eta jolasek izugarritzko garrantzia dute hezkuntza prozesuan, izan ere, hauekin ikasten ditugu bizi garen inguruko arauak eta portaerak. Jolasei eta jostailuei ematen diogun erabileraren arabera genero ezaugarri batzuk edo besteak transmitituko dira. Hau dela eta, heziketarako tresna garrantzitsua diren heinean ezinbesteko da

hauen inguruan egiten dugun erabilera egokia izatea genero diskriminazioa ez sustatzeko (Browne eta France, 1988).

Genero desberdintasunak markatzen dituztenak jolas eta jostailu sexistak dira. Hauek neskek edo mutilak jolasteko aukera ematen ez dutenak dira, baita gizona eta emakumea izatea erakusten dutenak ere. Beste era batera esanda, gizarterako genero zatiketa birproduzitzen dutenak (Mugartegi, 2016).

Txikitatik mutilei abenturarekin erlazionatutako jostailuak, kotxeak, eraikuntzak etab. erosten zaizkie, neskei, berriz, panpinak, edertasunarekin lotutakoak eta etxeko lanekin erlazionatutako jostailuak. Komunikabideak sexu bakoitzarentzako iragartzen dituen jostailuak aztertuz gero, argi gelditzen da gizarreak mutilen eta nesken inguruan espero duena (Arenas, 2016).

2.5.1. Jolas eta jostailu ez-sexistak aukeratzeko gomendioak

Aipatu bezala, jolas eta jostailuekin inguruarekin interakzio dugunez oso garrantzitsua izango da hauen aukeraketa egokia izatea. Honako hauek dira Aramaioko Udalak (2017) gure aukeraketa egiteko ematen dituen gomendioak:

- Neskak zein mutilak jolastu ahal izatea.
- Estereotipo sexisten transmisioa saihestea.
- Gainerako hurrekin jolasteko aukera ematea.
- Haurren arteko komunikazioa ahalbidetzea.
- Harreman parekideak bultzatzea, ez lehiakortasuna.
- Baztertzaila ez izatea: edozein haur jolas ahal izatea, ez soilik gaitasun bereziak dituztenak.
- Gehiegizko lehia eta indarkeria ekidin.
- Harreman kooperatiboak indartzea, hau da, helburua partekatua lortzea haurren artean.
- Dibertigarria eta motibagarria izatea: jolasteko gogoak piztea.
- Irudimena eta sormena garatzen laguntzea.
- Jakin-mina piztea, jostailuari beste aukera batzuk bilatzeko.
- Hausnartzeko gaitasuna bultzatzea, hala nola, gatazkak konpontzeko gaitasuna lantzea.
- Bizitzarako eredu anitzak bilatu.

3. HELBURUAK

Lan honen bitartez gaur egungo umeen errealitatea ezagutu nahi nuen genero estereotipoen inguruan. Hori dela eta, lan honen helburu nagusia hurrek zer nolako genero estereotipoak dituzten barneratuta jakitea da. Horretaz gain, erabiltzen dituzten jolas eta jostailuak zer nolako genero estereotipoak erreproduzitzen dituzten aztertuko da.

Aurretik aipatutakoa kontuan izanda, lan honen helburuak honako hauek dira:

- Jolasak eta jostailuen inguruan hurren genero estereotipoak zeintzuk diren ezagutzea.
- Ikasleen ustez “neska” eta “mutilen” jolas eta jostailuak dauden ala ez jakitea.

4. METODOA

Lan honetako atal hau osatzeko jarraitutako prozesua oso luzea izan da. Hasiera batean gaiaren inguruko informazioa jaso nuen, ondoren, informazio erabilgarrienarekin marko teorikoa burutzeko. Marko teorikoa kontuan izanda landa lanerako galdetegi bat egitea erabaki nuen, horretarako toki aproposena practicum- IIIko eskola zen. Praktiketara joan nintzenean tutoreari nire asmoa komentatu nion eta arazorik gabe baietz esan zidan. Modu horretan, landa lanerako ikasleentzako galdetegia prestatu nuen.

4.1. Landa lana

4.1.1. Testuingurua

Gradu amaierako galdetegia burutzeko practicum-IIIko garaian erabili nuen. Praktika hauek Gasteizko Luis Dorao eskolan egin nituen eta galdetegi hau bigarren zikloan burutu nuen, zehazki 6.mailan. Izan ere, maila honetako ikasleak hainbat ideia ulertzeko erraztasun handiagoa zutela pentsatu nuen. Eskola publiko hau Gasteizko Gazalbide auzoan kokatuta dago eta aniztasun handiko eskola da.

4.1.2. Diseinua

Landa lana egiteko erabili nuen prozedura 2. taulan adierazten da.

2. taula. Landa lana egiteko kronograma.

DATA	HELBURUA	ZEREGINA	TRESNA
2018/11/26	Tutoreari lanari buruzko informazioa helaraztea.	Tutoreari egin beharreko komentatu.	
2018/12/10	Bien artean galdetegiari buruzko erabakiak hartzea.	Irakaslearekin taldea eta eguna adostu.	

2019/01/07	<p>Galdetegia pasatu.</p> <p>Haurren genero estereotipoak zeintzuk diren ezagutzea.</p> <p>Ikasleen ustez “emakume” eta “gizonezkoen” jolas eta jostailuak dauden jakitea.</p> <p>Jolas eta jostailuak genero estereotipoak mantentzen dituzten edo ez aztertzea,</p>	Landa lanaren esku-hartzea.	Galdetegia
------------	---	-----------------------------	------------

4.1.3. Partaideak

Galdetegia bigarren zikloko bi taldetan pasatu nuen, seigarren mailako bi taldetan zehazki. Bi klase hauetatik 33 ikasle galdetegia egin zuten, horietako 16 galdetegi neskarenak eta 17 mutilenak izanik (ikusi 1. eranskina).

4.1.4. Informazioa jasotzeko erabilitako tresna

Esan bezala, informazioa jasotzeko galdetegi (ikusi 2. eranskina) bat pasatu nien ume bakoitzak bakarka bete zezan. Galdetegia zortzi galdera zituen: alde batetik, lehenengo bi galderak hautatzekoak izan ziren, horietako batean hainbat jostailu zeuden Mariaren jostailuak zeintzuk diren hautatzeko. Bestean 5 esaldi zituzten nortzuk esaten dituzten horrelakoak erabakitze (neskak, mutilak edo biek). Bestetik, bost galdera egongo dira motz-motz erantzuteko, esaterako, “zein da zure jolas gustukoena?”.

4.1.5. Jasotako informazioa tratatzeko prozesua

Galdetegia pasatu ostean, erantzunak bi modutan aztertu ditut: lehenengo bi galderetan erantzunak kuantifikatzekoak ziren eta excel programaren bidez aztertu ditut. Gainontzeko galderak aztertzeko, berriz, sistema kategorial sortu dut Nvivo programaren bidez eta hori 3.taulan agertzen da. Sistema kategorialaren bidez informazioa ordenatu eta aztertzeaz gain, emaitzen atalaren ordena antolatzeko baliagarria da ere. Informazioa kategoriala ezberdinetan sartu egin da.

3. taula. Sistema kategoriala.

Dimentsioak	Kategoriak
Jolas eta jostailu gustukoena	Jostailu digitalak
	Panpinak
	Liburuak

	Mahai jolasak		
	Baloia		
	Jolas motorrak		
Familiak oparitutakoak	Liburuak		
	Digitalak		
	Bizikleta		
	Patinetea		
	Baloia		
	Mahai jolasak		
	Bestelakoak		
	Panpinak		
Lagunekin jolastutakoak	Patioan	Jolas motorrak	
		Saskibaloia	
		Futbola	
		Baloia	
		Hitz egin	
	Eskolatik kanpo	Jolas eta jostailu digitalak	
		Jolas motorrak	
		Futbola	
		Saskibaloia	
		Hitz egin	
		Baloia	
		Panpinak	
	Lagunekin jolasteko jostailuak	Baloia	
		Slime	
Mahai jolasak			
Jostailu digitalak			

Dimentsioen deskribapena honako hau da:

-JOLAS ETA JOSTAILU GUSTOKOENAK

Kategoria honetan, seigarren mailako ikasle hauen jolas eta jostailu gustukoenak agertuko dira. Horretaz gain, neskak eta mutilak jolas eta jostailu berdinak gustuko dituzten jakingo da.

-FAMILIAK OPARITUTAKOAK

Kategoria honi dagokionez, haurrak jolas eta jostailuak eskatzerakoan inguruko eragileen eragina behatuko da.

-LAGUNEKIN JOLASTUTAKOAK

Kategoria honetan, ikasleak eskolan eta eskolatik kanpo lagunekin jolasten dituzten jolasak agertuko dira.

-LAGUNEKIN JOLASTEKO JOSTAILUAK


Kategoria honi dagokionez, haurrak lagunekin jolasteko erabiltzen dituzten jostailuak jakingo dira.

5. EMAITZAK


Hurrengo lerroetan galdetegian lortutako hainbat emaitza emango ditut. Lehenik, jolas eta jostailu sexuatuak dauden ala ez aztertuko dut, horretarako, excel programaren bidez lortutako bi grafiko erabiliko ditut. Ondoren, Nvivo programarekin lortutako emaitzak emango ditut aurretik aipatutako kategorietan banatuta (jolas eta jostailu gustukoenak, familiak oparitutakoak, lagunekin jolastutakoak eta lagunekin jolasteko jostailuak).

5.1. Jolas eta jostailu sexuatuak daude?

Ikasle gehienak Mariaren jostailuak hautatzerakoan gehien aukeratutako jostailua play station-a izan da eta ia maila berdinean bizikleta, panpinak, soka eta partxis-a. Hauen azpitik apaintzeko jostailuak neskentzako jostailuak bezala hautatu dituzte ere. Jostailu hauen artean kolore arrosa duten jostailuak aukeratu dituzte, izan ere, jostailuen artean bi bizikleta agertzen ziren bata arrosa eta bestea urdina, bi hauen artean arrosa aukeratu dute urdina baino gehiago. Hortaz, jostailua ez ezik, jostailuaren kolorea ere berebiziko garrantzia izan du. Hona hemen 1. galderaren grafikoa (1 eta 2. grafikoa):




1. grafikoa: jolas eta jostailu sexuatuak daude? nesken erantzunak



2. grafikoa: jolas eta jostailu sexuatuak daude? Mutilen erantzunak

Horretaz gain, 1. eta 2.grafiko horietan behatu dezakegun bezala oso ikasle gutxi hautatu dituzte kotxea, futboleko baloia eta bizikleta urdina neskentzat. Gauzak horrela, galdera honen erantzunak behatuta argi eta garbi ikusten da haurrek sexu bakoitzarentzako jostailu batzuk daudela pentsatzen dutela. Horrela ez izatekotan galdetegiko lehenengo galderan agertzen ziren jostailu guztiak hautatuko zituzten Mariaren jostailuak bezala. Bi ikasle taldeen artean soilik bi ikasle aukeratu dituzte jostailu guztiak.

Galdetegiko bigarren galderan 5 esaldi zituzten nortzuk esaten dituzten horrelakoak erabakitzeke, hau da, neskak, mutilak edo biak. Nahiz eta emakume bat futbolera jolastu dezaken eta gizonezko bat sokasaltora esaldiak erabakitzerako orduan haurrek bi genero horien inguruan izan ohi dituzten estereotipoetatik abiatu nintzen. Baliteke modurik egokiena ez izatea, baina txikiak direnean haurrak ingurutik jasotzen dituzten estereotipoz beterik daude. 3. grafiko honetan, ikasleek haien ustez nortzuk esaten dituzten esaldi horiek azaltzen dira:



3. grafikoa: jolas eta jostailu sexuatuak daude?

Hirugarren grafiko horretan, galdetegia egin duten ikasleak futbola eta harrapaketa gizonezkoek zein emakumezkoek praktikatuko dezaketela uste dute, hau da, ez direla sexuatuak. Gainontzeko esaldietan, aldiz, ez da horrela gertatu, izan ere, emakumeekin edo gizonezkoekin lotu dituzte. Hala, panpinak eta sokasaltoa nesken jolas gisa ikusten dute. Kotxeekin jolastea, berriz, mutilentzako dela uste dute.

5.2. Jolas gustukoak

Ikasleei jolas eta jostailu gustukoak inguruan galdetu zaienean jolas motorrak eta jostailu digitalak atera dira, eta ondoren, kopuru txikiago batean baloia, panpina eta mahai jolasak hurrengo argazkian behatu daitezkeen moduan:

1. argazkia: jolas eta jostailu gustukoak

Nombre	Recursos	Referencias
01 JOLAS ETA JOSTAILU GUSTUKOENAK		33
JOSTAILU DIGITALAK		15
PANPINAK		3
LIBURUAK		0
MAHAI JOLASAK		5
BALOIA		9
JOLAS MOTORRAK		20
02 FAMILIAK OPARITUTAKOAK		26
03 LAGUNEKIN JOLASTUTAKOAK		33
04 LAGUNEKIN JOLASTEKO JOSTAILUAK		22

Jostailu digitaletan “PS4” eta “fornite (PS4-ko bideojokoa)” izan dira gehien aipatutakoak:

“Zein da zure jostailu gustukoena? Play station 4.” (MU_AI)

“Zein da zure jolas gustukoena? Fornite.” (MU_DA)

Ildo beretik, jolas motorren inguruan nesken artean hainbat ideia komun agertu dira:

“Zein da zure jolas gustukoena? harrapaketa.”

Aipatzeko da, mutilak ere harrapaketa jolasak aukeratu dituztela, hala ere, hauen artean poliziak eta lapurrak jolasa aukeratu dute. Harrapaketa jolasak, ez ezik, mutilen artean ere honako erantzuna lautan errepikatu da:

“Zein da zure jolas gustukoena? futbola.” (MU_LU)

Beraz, mutilen erantzunetan lautan futbola atera da, nesken erantzunetan aldiz, ez da futbola agertu jolas gustuko gisa. Futbolean ez bezala panpinak aipatu dituzten hirurak neskak izan dira. Emakumea izaten baita amatasun eta zaintza jarduerekin lotzen dena.

5.3. Familiak oparitutakoak

Haurrei Olentzerori zer eskatu dioten galdetu zaienean ondorengoak dira lortutako emaitzak:

2. argazkia: familiak oparitutako jostailuak

Nombre	Recursos	Referencias
01 JOLAS ETA JOSTAILU GUSTOKOENAK	33	53
02 FAMILIAK OPARITUTAKOAK	26	33
Liburuak	4	4
Digitalak	12	12
Bizikleta	1	1
Patinetea	1	1
Baloiak	1	1
Mahai jolasak	3	4
Bestelakoak	9	9
panpinak	1	1
03 LAGUNEKIN JOLASTUTAKOAK	33	72
04 LAGUNEKIN JOLASTEKO JOSTAILUAK	22	23

Haurrak gehien eskatu dituzten opariak jostailu digitalak izan dira. Hauen artean play station-a eta mugikorrerako osagarriak nabarmendu dira. Horretaz gain, kopuru txikiago batean liburuak eta mahai jolasak ere eskatu dituzte. Hona hemen jostailu digitalen inguruko bi erantzun:

“Zer eskatu zenion Olentzerori? Mugikorrerako funda bat.” (NE_AI)

“Zer eskatu zenion Olentzerori? PS4.” (MU_IZ)

Haurrak opariak eskatzerakoan inguruan ikusten dutenean oinarritzen dira, bereziki komunikabidetako iragarkietan. Esaterako, Gabonetan telebista haurrei zuzendutako iragarkiz bete egiten da eta hurrek hauek bereganatzen dituzte. Azken urteetan jostailu digitalak modan egon direnez ez da harrizkeoa hurrek hauek eskatu nahia.

Aurretik aipatutako jostailuak baino kopuru txikiago batean beste jostailu batzuk eskatu dituzte, hala nola, bizikleta, patinetea, panpinak eta baloia. Esan beharra dago ere, jostailuak, ez ezik, arropa, zapatillak eta dirua ere izan direla eskatutako beste opari batzuk:

“Zer eskatu zenion Olentzerori? Eskatu zenion Dirua, baquero bat, chaqueta bat eta cubo de rubik.” (MU_MI)

Egia esanda galdera hau egitean espero nuen panpinak eta baloia gehien eskatzen zituzten jostailuak izatea, baina ez da horrela gertatu.

5.4. Lagunekin jolastutakoak

Lagunekin jolasterako orduan eskolan eta eskolatik kanpo jostailu digitalak ez dute hainbeste garrantzia izan eta beste batzuk nabarmendu dira:

3. argazkia: lagunekin jolastutako jolasak

Nombre	Recursos	Referencias
01 JOLAS ETA JOSTAILU GUSTOKOENAK		53
02 FAMILIAK OPARITUTAKOAK		33
03 LAGUNEKIN JOLASTUTAKOAK		72
Patioan		29
Jolas motorrak		11
Saskibaloia		4
Futbola		9
Baloia		2
Hitz egin		3
Eskolatik kanpo		43
Jolas eta jostailu digitalak		4
Jolas motorrak		25
Futbola		7
Saskibaloia		3
Hitz egin		2
Baloia		1
Panpinak		1
04 LAGUNEKIN JOLASTEKO JOSTAILUAK		23

Alde batetik, patio orduan zertara jolasten duten galdetu zaienean jolas motorrak, saskibaloia, futbola, baloia eta hitz egitea aipatu dute. Hauen artean gehien esan dutena

jolas motorra izan da, eta jolas motorren artean aipatu diren bakarrak harrapaketa jolasak izan dira ondorengo erantzunetan ikusten den moduan:

“Pation zaudenean zertara jolasten duzu? Harrapaketa, zombie, baloi errea eta bomba.” (NE_AN)

“Pation zaudenean zertara jolasten duzu? Harrapaketa jolasak.” (NE_PA)

Esan beharra dago, jolas motorrak aipatu dituzten ikasle guztiak bat izan ezik neskak izan direla. Antzekoa gertatu da patioan hitz egitearekin, izan ere, patioan hitz egiten dutela esan duten hiru ikasleetatik bi neska izan dira. Patio orduan futbolekin jolasten denak, berriz, guztiak mutilak izan dira. Saskibaloian, ordea, bai neskak, bai mutilak modu berdinean jolasten dute.

Bestetik, eskolatik kanpoko jolasetan ere jolas motorrak nabarmendu dira, eta hauen artean berriz ere harrapaketa jolasak. Patioan bezala eskolatik kanpo futbolera jolastu duten guztiak mutilak izan dira, eta panpinekin eta hitz egin, berriz, neskak. Patioan ez bezala eskolatik kanpo jostailu digitalak erabiltzeko aukera dutenez hauen erabilera handiagoa izan da. Hala ere, espero nuena baino ikasle gutxiago aukeratu dituzte jolas digitalak lagunekin jolasteko.

5.5. Lagunekin jolasteko jostailuak

Beheko argazkian (4. argazkia) ikusi daitekeen moduan lagunekin jolasteko ume gehienak baloia aukeratu dute, eta ondoren berriz ere jostailu digitalak:

4. argazkia: lagunekin jolasteko jostailuak

Nombre	Recursos	Referencias
01 JOLAS ETA JOSTAILU GUSTOKOENAK	33	53
02 FAMILIAK OPARITUTAKOAK	26	33
03 LAGUNEKIN JOLASTUTAKOAK	33	72
04 LAGUNEKIN JOLASTEKO JOSTAILUAK	22	23
Baloia	12	12
Slime	1	1
Mahai jolasak	3	3
Jostailu digitalak	7	7

Jostailu digitalak aukeratu dituzten guztiak mutilak izan dira. Gainera, jostailu digitaletan ondorengo nabarmendu da erantzunen artean:

“Zein da zure lagunekin jolasteko gehien gustatzen zaizun jostailua? PS4.” (MU_EN)

Horretaz gain, haurrak lagunekin jolasteko gustuko duten beste jostailu bat mahai jolasak dira. Mahai jolasak aukeratu dituzten hiru ikasleak hurrengo mahai jolasa aipatu dute:

“Zein da zure lagunekin jolasteko gehien gustatzen zaizun jostailua?
Unora.” (NE_AN)

Azkenik, pertsona bakar batek soilik aukeratu du slime-a lagunekin jolasteko jostailu gisa. Galdera honetan argi ikusten da lagunekin daudenean jostailu digitalen erabilpena baxuagoa dela.

6. ONDORIOAK

Lanaren atal honetan aurreko atalean eskuratutako emaitzak marko teorikoko zenbait ideiekin erlazionatuko dira: Galdetutako ikasleek ez dituzte hainbat jostailu hautatzen bere generokoak ez direlako horrek bat egiten du teorian bilatu denarekin, eta hala, jolas eta jostailu sexuatuak dagokionez, Martínez-Reina eta Vélez Cea (2008) ikerketek “mutilentzako” eta “neskentzako” jolas eta jostailuak daudela uste dute. Nesken jostailuak sozialki femeninoak diren jarduerak imitatzen dituzte, hala nola, zaintza, hezkuntza, edertasuna etab. Horregatik, Falconnet eta Lefaucheur-en ustez (in Lumbreras, 2013) nesken jostailuak ondorengoak dira: panpinak, panpin etxeak, etxetresnak, apaintzeko tresnak eta zaintzarako tresnak. Mutilak, berriz, sozialki esfortzu fisiko handiko jarduerak eta jarduera heroikoak egitera animatzen dira (Martínez-Reina y Vélez Cea, 2008). Modu horretan, gure kasuan, galdetegiaren erantzunak aztertuta, abenturarekin, garraioarekin, aurkikuntzarekin eta borrokarekin erlazionatutako jostailuak mutilen jostailuak direla uste da (Lumbreras, 2013). Aztertutako ikasleak ideia hauekin guztiz bat datoz, izan ere, panpina, soka, apaintzekoak, bizikleta arrosa eta kontsola aukeratu dute Mariaren jostailu gisa. Gauzak horrela, argi dago ikasleentzako jolas eta jostailuak sexuatuak daudela.

Horretaz gain, gure ikasleentzat jostailuaren kolorea garrantzi handia du kolore arrosako jostailuak aukeratu dituztelako Mariaren jostailu gisa. Hortaz, galdera honekin argi gelditu da ikasleentzako kolorea genero marka duela, Subirats eta Brullet (1988) autoreek bere ikerketetan ideia hau defendatzen duten bezala. Haien ikerketen ustez kolore urdina ohikoagoa da mutilen kasuan eta arrosa nesketan.

Jolas gustukoenei erreparatuz, bai neskentzako bai mutilentzako jolas gustukoak motorrak izan dira. Jolas motorren artean biek harrapaketa jolasak aipatu dituzten arren, mutilen erantzunetan futbola agertu da. Ez da harritzekoa futbolariek duen garrantzia, izan ere, komunikabideetan gehien ikusten den kirola da beste kirol batzuk, ordea, ez dira inoiz agertzen. Hori gutxi balitz, komunikabideetan soilik mutil futbolarien inguruan hitz egiten da (Vizcarra, Macazaga eta Rekalde, 2009) . Honen ondorioz, neskak futbola mutilen gauza dela pentsatzera eraman ahal ditu. Panpinak aipatu dituzten guztiak, berriz, neskak izan dira. Emakumea izaten baita zaintza jarduerekin

lotzen dena (Arenas, 2016). Gauzak horrela, argi dago jostailuak eta jolasak haurrentzako genero marka dutela.

Familiari eskatutako jostailuei dagokionez, jostailu digitalak izan dira gehien aukeratu dituztenak. Martínez-Reina y Vélez Cea- ren ustez (2008) ez da harritzekoa kontuan izaten badugu azken urteetan teknologia berriak izandako hedapena. Are eta gehiago, umeak txikitatik aparatu digitalekin kontaktuan daude, esaterako, ordenagailua, telebista, kontsola etab. Izan ere, jolas eta jostailu tradizionalak pixkanaka-pixkanaka teknologia berrien proposamenengatik ordezkatuak izaten ari dira, zehazki bideo-jokoek eskaintzen duten mundu birtualagatik.

Lagunekin jolastutakoak kategorian, argi gelditu da Villanova eta Soler-ek (2008) dioten moduan patio orduetan mutilak esparru handiagoak hartzen dituztela eta neskek, aldiz, alboetan dauden esparru txikiagoak. Aztertutako ikasleen artean patioan hitz egiten dutela esan duten hiru ikasleetatik bi neska izan dira. Patio orduan futbolean jolasten dutenak, berriz, guztiak mutilak. Hortaz, eskoletako patioetan sexuaren araberako segregazioa ematen da jarduerak eta espazioaren okupazioa desberdina delako. Gainera, lehenengo urteetan soilik jolasten dute bi sexuak elkarrekin. Aipatu beharra dago, patio ordua haurrentzako ikaskuntza gunea dela, han obserbazioaren eta imitazioaren bidez sozializatzen ikasten dute. Beraz, han ematen diren portaerak aztertu behar dira (Garay, Vizcarra eta Ugalde, 2017).

Horretaz aparte, bai eskolan, bai eskolatik kanpo mutilen erantzunetan futbola nabarmendu da Garay, Vizcarra eta Ugalde-ren (2017) hitzetan futbola maskulinitate hegemonikoaren eraikuntzan elementu ezinbestekoa baita, izan ere, beste pertsonen onarpena lortzeko bidea da. Futbolak paper garrantzitsua jokatzen du eskolako erlazio eta dinamiketan, beste era batera esanda, pertsona bakoitzak futbolean duen gaitasunaren arabera sailkatzen da. Gaitasun handiagoa dutenak liderrak izango dira, hain gai ez diren ikasleak, ordea, bigarren plano batean geratuko dira. Bigarren plano horretan neska gehienak eta hain abilak ez diren edo futbola interesatzen ez zaien mutilak daude.

Lagunekin jolasteko jostailuen kategorian, jostailu digitalak aukeratu dituzten guztiak mutilak izan dira. Martínez-Reina y Vélez Cea- ren ustez (2008) jostailu digital hauen edukiak erabiltzaile maskulinoetara bideratuta daude, sexu honetara esleitzen zaizkion ezaugarriak dituztelako.

7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Pixkanaka lana egiten joatea eta amaierarako ez uztea lana asko erraztu didala uste dut. Hala ere, egindako lanaren zenbait aspektu aldatuko nituzke:

Alde batetik, informazioa jasotzeko erabilitako tresna egokia izan den arren, askoz aberasgarriagoa izango litzateke gelan talde txikitan eztabaida bat sortzea. Izan ere, talde txikitan jende gehiago hitz egiten baitu. Noski eztabaida hauek sortu ahal izateko denbora eta tutoreen baimena beharrezkoa da, eta askotan ez da batere erraza.

Bestetik, emaitzak jasotzerakoan galdetegiko seigarren galdera ikasle guztientzako aproposa ez zela konturatu nintzen. Izan ere, familia guztiak ez dizkiote opariak Olentzerori eskatzen edo ez dute maila ekonomikoa opariak erosteko. Hori horrela, galdetegitik galdera hori kentzea egokiagoa izango litzateke.

Horretaz gain, emaitzak sailkatzerakoan galderak oso anitzak ez zirenez galdera askotan antzeko erantzunak eskuratu ditudala ohartu naiz. Modu horretan, galdetegian beste galdera batzuk sartu beharko nituzkeela pentsatzen dut.

Amaitzeko, behin lana amaituta, esan beharra daukat orokorrean egindako lanarekin nahiko gustura gelditu naizela bi arrazoiengatik: lehenengoa, Nvivo programa ezagutu dudalako eta bigarrena, egiten nituen akatsetatik ikasiz nire lana aberasten ikasi dudalako.

8. ERREFERENTZIAK

- Alonso Rueda, J.A. (2007). Coeducación y Educación Física. *Revista de estudios sobre tierra mágica, Sumuntán, 24*, 165-179.
- Alvariñas-Villaverde, M. eta Pazos-González, M. (2018). Estereotipos de género en Educación Física, una revisión centrada en el alumnado. *REDIE. Revista Electrónica de Investigación Educativa, 20(4)*, 154-163. 2019ko otsailaren 22an berreskuratua: <http://dx.doi.org/10.24320/redie.2018.20.4.1840> tik.
- Aramaioko Udala (2017). *Jostailu ez sexistak identifikatzeko gida*. In Aramaioko Udala. 2018ko urriaren 27an berreskuratua: <http://www.aramaio.eus/jostailu-ez-sexistak-identifikatzeko-gida/-tik>
- Arenas, G. (2006). *Triunfantes perdedoras. La vida de las niñas en la escuela*. Bartzelona: GRAÓ.
- Bilgune Feminista (2011). Hezkidetza lau haizetara. 2018ko azaroaren 6an berreskuratua:http://topatu.info/wpcontent/uploads/2012/11/hezkidetza_lau_haizetara1.pdf-tik
- Browne, N. eta France, P. (1988). *Hacia una educación infantil no sexista*. Madril: Morata.
- Carrillo Siles, B. (2009). Importancia del curriculum oculto en el proceso de enseñanza-aprendizaje. *Revista Digital de Innovación y Experiencias Educativas, 14*. 2019 ko otsailaren 15an berreskuratua: http://www.csi-csif.es/andalucia/mod_ense-csifrevistad_14.html
- Cevotarev, N. (2003). Familia, socialización y nueva paternidad. *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud, 1*. 2016ko maiatzaren 18an berreskuratua http://www.scielo.org.co/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1692-715X2003000200003 tik.
- Emakunde (2004). Generoa, sexua, hedabideak. Errealitateak, estrategiak, utopiak. Gasteiz: Gráficas Marcal. 2018ko urriaren 27 an berreskuratua: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub_jornadas/eu_emakunde/adjuntos/externa.02.genero.sexo.medios.comunicacion.eus.pdf tik
- Espinar Ruiz, E. (2009). Estereotipos de genero. *Revista padres y maestros, 326*, 17-21. 2018ko azaroaren 6an berreskuratua: <http://revistas.upcomillas.es/index.php/padresymaestros/article/view/1319> tik
- Gallego, M- .C. (2012). La identidad de género: masculino versus femenino. Congreso Internacional de Comunicación y Género. Sevilla. 2016ko maiatzaren 16an berreskuratua: <https://idus.us.es/xmlui/bitstream/handle/11441/34671/Pages%20from%20LIBRO%20ACTAS%20I%20CONGRESO%20COMUNICACION%20C3%93N%20Y%20G%20C3%89NERO-4.pdf?sequence=1&isAllowed=y> tik.
- Garay, B.; Vizcarra, M. T; eta Ugalde, A.I. (2017). Los recreos, laboratorios para la construcción social de la masculinidad hegemónica. *Teoría de la educación, Revista Interuniversitaria, 29(2)*, 185-209.

- Granada, J. et. al. (2018). Género y relación con la práctica de la actividad física y el deporte. *Apunts*, 132 (2), 123-141. 2018ko urriaren 27an berreskuratua: <http://www.revista-apunts.com/es/hemeroteca?article=1827> tik.
- Gutiérrez, M. (1998). Desarrollo de valores en la educación física y el deporte. *Apunts*, 51, 100-108. 2018ko urriaren 27an berreskuratua: <http://www.revista-apunts.com/es/hemeroteca?article=691&highlight=Desarrollo> -tik
- Lumbreras, N. (2013). *Estereotipos de género en los juguetes, de los niños de Educación Primaria* (gradu amaierako lana). Logroño: Universidad Internacional de La Rioja:
- Martínez Reina, M. D., eta Vélez Cea, M. (2008). *Estereotipos de género en el juego y en el ocio tecnológico interactivo*. Granada: Universidad de Granada, Mejía, C. (2015). *Sexo y género. Diferencias e implicaciones para la conformación de los mandatos culturales de los sujetos sexuados*. Mexico: consejo editorial. [Kontsulta: 2018ko azaroaren 27an]. Berreskuratua: <https://www.aacademica.org/carlos.mejia.reyes/12> tik.
- Moreno, M. (1993). *Como se enseña a ser niña: el sexismo en la escuela*. Bartzelona : Icalia.
- Moreno Díaz, Karina del Carmen, et al. (2017). Rompiendo con los Estereotipos: Una experiencia educativa con enfoque de género en una escuela básica. *REXE, Revista de Estudios y Experiencias en Educación*, 16 (32), 165-174.
- Mugartegi, E. (2017). *Lekeitioko udalak jolas eta ipuin ez sexisten gida kaleratu du*. In Hitza. 2018ko azaroaren 13an berreskuratua: <http://lea-artibaietamutriku.hitza.eus/2017/12/21/lekeitioko-udalak-jolas-eta-ipuin-ez-sexisten-gida-kaleratu-du/>- tik
- Parra Martínez, J. (2009). *Educación en valores y no sexista*. [linean]. Talavera De La Reina. 2018ko urriaren 27an berreskuratua: http://institutomujer.castillalamancha.es/sites/institutomujer.castillalamancha.es/files/publicaciones/descargas/educacion_en_valores_y_no_sexista_4.doc.pdf- tik
- Rodríguez Pérez, A. (2007). Principales modelos de socialización familiar. *Foro de Educación*, 5 (9), 91-97.
- Salas García, B. (1997). *Ikastetxearen hezkidetzaren eredu egiteko gida*. Gasteiz: Emakunde. 2018ko azaroaren 13an berreskuratua: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.eus.pdf.pdf tik.
- Santos, M. A . (2000). *El harén pedagógico. Perspectiva de género en la organización escolar*. Bartzelona: Graó.
- Sau, V. (2000). *Diccionario Ideológico Feminista*. Bartzelona: Icara Editorial
- Scraton, S. (1995). *La educación física de las niñas: un enfoque feminista*. Madril: Morata.
- Subirats, M. y Brullet, C. (1988) *Rosa y Azul. La transmisión de los géneros en la escuela mixta*. Madril: Instituto de la Mujer.
- Tinning, R. (1992). *La educación física la escuela y sus profesores*. Valencia: Universidad de Valencia.

- Tornero, J.M . (2008). La sociedad multipantallas: retos para la alfabetización mediática. *Comunicar*, 16(31), 15-25
- Velandia-Morales, A. eta Rincón, J. C. (2013). Estereotipos y roles de género utilizados en la publicidad transmitida a través de la televisión. *Universitas Psychologica*, 13(2),517-527. 2019eko otsailaren 20ean berreskuratua: <https://revistas.javeriana.edu.co/index.php/revPsycho/article/view/5854>
- Vilanova, A, eta Soler, S. (2008). Las mujeres, el deporte y los espacios públicos: ausencias y protagonismos. *Apunts, Educación Física y Deportes*, 91, 29-34.
- Vizcarra, M. T., Macazaga, A. M., eta Rekalde, I. (2009). Eskolako kirol lehiaketan neskek dituzten baloreak eta beharrak. Bilbo: Emakunde-UPV/EHU.

9. ERANSKINAK

1. Eranskina: partaideak

Espacio de trabajo | Elemento | Portapapeles | Formato | Párrafo | Estilos | Edición

Recursos < Buscar Buscar en Elementos inter Buscar ahora Borrar Búsqueda avanz X

Elementos internos

Nombre	Nodos	Referencias	Creado el	Creado por	Modificado el	Modificado por
Galdetegi_Benjamin		8	9 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Bruklin		13	20 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_David		12	15 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Iosu		14	23 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Izan		9	10 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Luka		7	10 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Markel		11	12 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Mikel		13	17 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Ainhoa		9	12 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:55	AA
Galdetegi_Alisson		7	7 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Anastasia		13	16 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Daniela		10	14 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Eider		13	18 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Jara		7	7 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Laura		13	16 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Paula		12	14 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Aimar		9	13 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:38	AA
Galdetegi_Ander		11	15 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_David (2)		12	14 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Endika		10	12 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Fernando		11	15 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA

Recursos < Buscar Buscar en Elementos inter Buscar ahora Borrar Búsqueda avanz X

Elementos internos

Nombre	Nodos	Referencias	Creado el	Creado por	Modificado el	Modificado por
Galdetegi_David (2)		12	14 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Endika		10	12 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Fernando		11	15 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Iker		11	12 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Kevin		12	14 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Markel (2)		9	9 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Mirko		9	12 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Ane		12	14 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Ane_2		11	12 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Arianne		8	9 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Bernia		13	18 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Haizea		11	14 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Larraitz		10	12 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Mafssa		5	5 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA
Galdetegi_Naiara		12	14 15/04/2019 12:07	AA	15/04/2019 12:07	AA

MB 33 elementos

2. Eranskina: galdetegia

Izena:

Maila:

1. *Asteburuan Aitor Mariaren etxera lo egitera joan da. Asteburu osoan jolasean ibili ondoren, Aitor bere etxera joateko momentua iritsi denean bien jostailuak nahastuta daudela konturatu dira.*

Gai izango zinateke asmatzen zeintzuk diren Mariaren jostailuak? Hurrengo taulan borobildu Mariaren jostailuak.

2. Nortzuk esango dituzte ondorengo esaldiak? Egin "X" bat erantzun zuzenean.

	NESKA	MUTILA	BIEK
Patio orduan futbolean jolastea asko gustatzen zait.			
Nire etxean jostailuzko kotxe asko ditut.			
Nire lagunekin sokasaltoan ibiltzen naiz egunero.			
Atzo panpin berri bat erosi zidaten.			
Asteburu honetan harrapaketan jolastu dut lagunekin.			

3. Zein da zure jostailu gustukoena?

4. Zein da zure jolas gustukoena?

5. Zertara jolasten duzu zure lagunekin zaudenean?

6. Zer eskatu zenion Olentzerori?

7. Pation zaudenean zertara jolasten duzu?

8. Zertara jolasten duzu lagunekin zaudenean?

9. Zein da zure lagunekin jolasteko gehien gustatzen zaizun jostailua?